

3. Ipuina

“PERIKO ETA KALISTA, TENTSIOMETRO ARTISTAK”

1. HELBURUAK

2. EDUKIAK

3. JARDUERA

Ana M^a García de Motiloa Gámiz

3. IPUINA	HELBURU OROKORRA	HELBURU ZEHATZAK, GAITASUNEN ARABERA				
“PERIKO ETA KALISTA, TENTSIOMETRO ARTISTAK”	Zenbait teknikaren bidez pentsamendu positiboa garatzea, zailtasunei modu errealistan aurre egiteko gai izateko eta, horren bidez, autoestimua sendotzeko.	<i>Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna</i>	<i>Matematikarako gaitasuna</i>	<i>Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna</i>	<i>Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna</i>	<i>Autonomia eta ekimen pertsonala gaitasuna</i>
		Haurrak maitatuak, balioetsiak eta ulertuak sentitu diren egoera jakinak adierazi ahoz eta idatziz, afektuen garrantziaz jabetzeko.	LUZERA-unitateak lantzeko tresna nagusitzat hartzea tentsiometroa.	Osasuna ikuspegi integral batez ulertzea: jarduera fisikoa, osasunari eusteko ezinbesteko elementutzat eta gure itxura mentala zaintzeko aisialdiko denbora betetzeko aukeratzat hartua.	Tentsiometroari eta irristaketa artistikoari buruzko informazioa bilatzea, eskuratzea eta lantzea, eta osasun-langileekin partekatzea.	Tentsiometroen ipuina abiapuntu hartuta, behatu zer balio eta jarrera agertzen diren ipuinean, hala nola ardura, saiaturia izatea, nork bere burua ezagutzea, AUTOESTIMUA, sormena eta emozioen kontrola, guztien gaineko gogoeta egiteko eta eguneroko bizitzan erabiltzeko.

3. IPUINA	EDUKIAK, GAITASUNEN ARABERA				
“PERIKO ETA KALISTA, TENTSIOMETRO ARTISTAK”	<i>Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna</i>	<i>Matematikarako gaitasuna</i>	<i>Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna</i>	<i>Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna</i>	<i>Autonomia eta ekimen pertsonala gaitasuna</i>
	*Irakurritzko ulermena. *Ahalegina balioestea *Emozioak ahoz adieraztea. *Konparazioak *Pentsamendu positiboa *Esaerak *Enpatia *Akrostikoa.	*Luzera-neurriak. *Luzera, garaiera, zabalera. *Arrak, oinak eta urratsak. *Neurketa-taulak.	*Esaerak *Eztabaida. *Arnasketa, erlaxazioa eta meditazioa. *Hautzaroko gaixotasun infekziosoak *Informazio-testua: txosten medikoa.	*Interneten informazioa bilatzea. *Abestiak hautatzea *Power Point, formatuak: 1. PPS 2. PPT	*Bakarkako lana eta talde-lana. *Komunikazioa *Tolerantzia *Ustekabekoak *Iragankorra den hori: ospea. *Esker ona

“PERIKO ETA KALISTA, TENTSIOMETRO ARTISTAK”



Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

- Lee el cuento: "Perico y Calixta, los tensiómetros artistas"
- Responde a estas preguntas relacionadas con el cuento que has leído.
 1. ¿Qué opinión te merece lo que hacen Perico y Calixta después de terminar su trabajo?

2. ¿Por qué son "mágicas" las caras de Perico y Calixta?

3. ¿Crees que Dora no ha entendido bien lo que le dice Calixta, cuando le pregunta: "¿me darás tu brazo?". Explícalo.

4. ¿Qué enseñó Brenda la "fonenda" a los tensiómetros para que lo hicieran cuando estuvieran nerviosos?

¿Te parece que practicar eso nos puede ayudar a calmarnos?



5. ¿Qué se dicen a sí mismos Perico y Calixta para calmar la mente (los pensamientos)?


6. Los tensiómetros saben que la fama tal y como viene se va.
¿Crees que es importante saber esto? ¿Por qué?

7. ¿Cómo crees que se sentiría Perico cuando estaba tan enfermo?

¿En qué pensaría? _____

8. Escribe el nombre de todos los que ayudan a Perico a curarse.

- Hablamos sobre el valor del esfuerzo en los estudios, en el trabajo y en el deporte.
Cada alumno y alumna contará alguna anécdota suya que esté relacionada con el esfuerzo.



- Localiza en el cuento la frase que se dicen los tensiómetros para hacer las cosas bien.

- Inventa una frase que te dirías a ti mismo o a ti misma para darte ánimos ante una situación difícil.

- ¿Qué habría pasado si el público hubiera abucheado a los tensiómetros?. Escribe tres oraciones para esa situación.

1. _____

2. _____

3. _____



- Localiza al principio del cuento tres comparaciones, por ejemplo:

Perico tiene la cabeza cuadrada **como** un televisor.

1. _____

2. _____

3. _____

- Hablamos sobre las situaciones en las que no nos sentimos seguros en el hospital. Las comentamos y buscamos vías de solución.
- Terminamos las siguientes oraciones:



○ Me siento amado/a cuando _____

○ Me siento valorado/a cuando _____

○ Me siento comprendido/a cuando _____

- Representamos el cuento. El profesor hará de narrador y los niños y niñas intervendrán en los diálogos de los personajes que representan.
- Escribe una oración con las palabras que te gustaría que te dijeran los médicos cuando estés en el hospital.

- Escribe cinco palabras que te gustaría que te dijeran tus padres al llegar a casa (después de la hospitalización). Las puedes poner en una oración:

Palabras: _____

Oración: _____



- Trabajamos el significado de expresiones que aparecen en el cuento como:

- “darle al pico”,
- “ir sobre ruedas”,
- “cabeza cuadrada”



- **El acróstico** es una composición poética formada por versos cuyas letras iniciales medias o finales forman una palabra o una frase.

Sheila, una niña que estuvo ingresada en el hospital, hizo uno:

Soy una niña alérgica, es algo normal

Hay alimentos que me sientan mal

Estoy ahora en el hospital

Importante es darme medicamentos, yo diría fundamental

Lo que más me gusta son los filetes, casi a rabiar

Aunque también me gusta mucho dibujar y pintar

- Escribe un acróstico para formar la palabra que tú elijas.



Matematikarako gaitasuna



- Neurtu gelako mahaiaren luzera, altuera eta zabalera eskuarekin (arratan) eta metroarekin. Taula honetan, idatzi neurketaren emaitzak:

	ARRAK	METROAK
LUZERA		
ALTUERA		
ZABALERA		

- Bihurtu arratan egindako neurketa zentrimetrotara

	ARRAK	ZENTIMETROAK
LUZERA		
ALTUERA		
ZABALERA		

- Neurtu gelako alfonbraren luzera oinetan eta metroarekin. Taula honetan, idatzi neurketaren emaitzak:

	OINAK	METROAK
LUZERA		




- Neurtu neurketa-zintarekin eta urratsetan, zer distantzia egiten duen tentsiometroak zure gelatik ospitaleko ikasgelara. Idatzi emaitzak taulan.

	NEURKETA-ZINTA	URRATSAK
DISTANTZIA		

- Eman neurketa-zintarekin lortutako emaitza metrotan, dezimetrotan eta zentimetrotan.

	METROAK	DEZIMETROAK	ZENTIMETROAK
DISTANTZIA			



- Alderatu, metrotan, tentsiometroak ospitaleko ikasgelatik zure gelara egiten duen distantzia eta ikasgelatik beste kide baten gelara egiten duen distantzia.

Ikasgelatik nire gelara _____

Ikasgelatik nire kide baten gelara _____


Kalkulatu aldea _____

- Zenbat uste duzu neurtzen duela tentsiometroaren beso-zorroak? Neurtu erregela batekin, eta alderatu zuk auresandako balioa eta benetako neurketaren emaitza.


	NIK AURESANDAKOA	BENETAKO NEURRIA
BESO- ZORROAREN NEURRIA		



- *10 pelos juntos o cuánto mide un milímetro* liburuan, 1. gaia —“Largo, ancho alto”— kontsultatuko dugu, eta ariketak egingo ditugu zenbait neurriekin.



Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna



- Bilatu esaldi honen esanahia: *mens sana in corpore sano*. Esanahia azalduko dugu, eta hari buruzko gogoeta egingo dugu.
- Azalpena eman ondoren, ariketa fisikoarekin gorputza eta erlaxazioarekin eta meditazioarekin burua zaintzearen garrantziari buruzko eztabaida txiki bati ekingo diogu.
- Irakurri Leirek idatzi zuen eta ikasgelako blogean argitaratua dagoen testu hau (2008ko azaroaren 10a):

“Kaixo, Leire naiz, 11 ditut, eta Txagorritxuko ospitalean nago. Apendizitisa nuelako ospitaleratu ninduten. Operazio-gelan sartu aurretik, **OSO LASAI NENGOEN, BANEKIELAKO DENA ONGI ATERAKO ZELA ETA MINA KENDUKO ZIDATELA. Azkenean, dena oso ongi irten zen.**

Niri iritziz, gauzak ongi irtengo direla eta gaizki ez direla irtengo pentsatzen badugu, indarra ematen diogu buruari. Burua lasai izatean, gorputza lasaiago dago. Hala, bihotzak dagokion erritmoan lan egiten du, arnasketa normala da, eta ez gara hain urduri egoten.

Horregatik, denak, haurrak eta helduak, positiboagoak izatera animatzen ditut”.



- Garrantzitsua iruditzen zaizu Leirek bere esperientziari buruz kontatu diguna?
Zergatik?

- Erlaxazio-, arnasketa- eta bistaratze-ariketetatik abiatuta, meditazio txikiak egingo ditugu, pentsamenduak beren kasa uzteko. Ariketa hori “**DIABETES**”, sala de meditación WEB QUESTean jasota dago, blog honetan: www.hospitalandia.blogspot.com (eskuineko zutabea)



- Hondoko musika gisa, *The new age music* CDa edo antzeko besteren bat entzungo dugu.
- Ipuineko tentsiometroen gaixotasuna abiapuntu hartuta, bilatu hiztegian hitz hauen esanahia:

ELGORRIA _____

Bilatu haurtzaroan oso kutsakorra den beste gaixotasun baten definizioa ere:

ASTANAFARRERIA _____

- Pediatren eta erizainen laguntzarekin, gaixotasun horiei (elgorria eta astanafarreria) buruzko datuak bildu behar ditugu, galdera hauek eginez:


1. Zenbat astanafarreri-kasu izaten dira urtean pediatriako solairuan?
2. Urtaro jakin batean agertzen da gaixotasun hori?

3. Zer sintoma ditu?
4. Zer tratamendu du?
5. Elgorri-kasurik izaten da?
6. Garrantzitsua da gaixotasun horien kontrako txertoa hartzea?
7. Zergatik?
8. Esan diezazkigukezu haurtzaroko gaixotasun kutsakor gehiagoren izenak?



- Taula honetan jarriko ditugu galdetegian jasotako datuak:

Barizela-kasuak urtean	
Zer urtarotan agertzen den	
Sintomak	
Tratamendua	
Elgorri-kasuak urtean	
Txertoak	
Haurtzaroko beste infekzio-gaixotasun batzuk	



- **Informazio-testua: txosten medikoa.**

[Osasun-profesional](#) batek idatzitako dokumentua da txosten medikoa, asistentzia-prozesu zehatz bati buruzkoa (adibidez, ospitaleratze bati buruzkoa).

Asistentzia-prozesua amaitu ondoren, paziente orok edo familia-arrazoiak direla-eta harekin zerikusia duen pertsona orok eskubidea izango du osasun-zentro edo -zerbitzuan [alta-txostena](#) jasotzeko, non datu hauek zehaztuko baitira gutxienez:

- pazientearen datuak,
- haren historia klinikoaren laburpena,
- emandako asistentzia-jarduera,
- diagnostikoa eta gomendio terapeutikoak.

Orain, txosten mediko baten eredu bat ikusi eta irakurriko duzu arretaz, eta han, txostenaren ataletako bakoitza ulertzeko aukera izango duzu, osasunaren inguruko hizkuntza hobeto ulertzen lagundu digun pediatria batek emandako azalpenei esker.

Gero, aukera izango duzu pediatria horrek berak egindako txosten bat irakurtzeko, zeinari eskerrak eman nahi baitizkiogu ikasteko eman digun laguntzagatik.



TXOSTEN MEDIKOA

KONTSULTAREN ARRAZOIA:

Medikuak haurra kontsultara etortzea eragin duten **sintomak** (gaixotasunaren seinaleak) eta sintoma horien **iraupena** jasotzen ditu txostenean.

AURREKARIAK

Pertsonalak: Medikuak jakin behar du haurrak **gaixotasun larriren bat** edo alergia-motaren bat ote duen. Halaber, txostenean jasotzen du haurraren garapena normala izan den edo ez eta txerto guztiak hartuak dituen edo ez.

Familiakoak: Aitona-amonek, gurasoek edo anai-arrebek medikuak jakin beharreko gaixotasun garrantzitsuren bat ote duten jakiteko zenbait datu jasotzen dira.

MIAKETA:

Pazienteari miaketa egin ondoren, hots, zer gaixotasun duen jakiteko aztertu ondoren, ikusi duena jasotzen du txostenean medikuak. Atal honetan **konstanteak** ere jasotzen dira, hau da:

- **Tenperatura**
- **Bihotz-maiztasuna (bihotzak minutu batean ematen duen taupada-kopurua)**
- **Arnas erritmoa (minutuko egiten diren arnas hartzeak eta arnasbotatzeak)**
- **Tentsio arteriala**

MIAKETA OSAGARRIAK:

Kontsultaren arrazoiaren arabera, litekeena da medikuak beste proba batzuk eskatzea: odol-analisia, gernu-analisia, erradiografiak...

BILAKAERA:

Pazientea zer medikamenturekin tratatu den eta tratamenduari nola erantzun dion ere jasotzen du medikuak txostenean.

IRITZI KLINIKOA EDO DIAGNOSTIKOA:

Hemen, gaixotasunaren izena idazten da, adibidez: PNEUMONIA.

TRATAMENDUA

Atal honetan, pazienteak hartu behar duen medikazioaren izena, **ezarritako dosiak** eta sendaketa-prozesua etxean amaitzeko **tratamenduaren iraupena** idazten ditu medikuak.

Haurraren pediatrik jarraipena egin behar dio gero, tratamendua amaitu arte. Hark jasotzen du prozesuaren amaiera.



Izen-abizenak..... Benjamin Stilton

Adina..... 10 urte

KONTSULTAREN ARRAZOIA:

Sukarra eta eztarriko mina azken 24 orduetan

AURREKARIAK:

Pertsonalak: Ez du alergiairik. Txerto guztiak hartuak ditu. Ez du interes bereziko aurrekaririk.

Familiakoak: Guraso eta anai-arreba osasuntsuak.

MIAKETA:

Egoera orokor ona, kolore ona larruazalean eta mukosetan, hidratazio egokia. Meningitis-sintomarik ez.

MIAKETA OSAGARRIAK:

Faringe-frotis positiboa, A taldeko *estreptokokoa.

****ORL:** amigdalak exudatu bigunarekin (zorne-puntuak)

*****BBA:** normala

Abdomena: normala

Gainerako miaketa: normala.

BILAKAERA:

Tratamendua ******amoxizilinarekin** hasten da, ahotik emanda, 5 ml 8 orduan behin; pazienteak ondo erantzun dio tratamenduari, eta sukarra desagertu egin da.

Bilakaera klinikoa ona izan da, eta pazienteari alta eman zaio.

IRITZI KLINIKOA (Diagnostikoa):

AMIGDALITIS AKUTUA

TRATAMENDUA:

Amoxizilina, ahotik, 5 ml 8 orduan behin, hamar egunez.

Bere pediatrak kontrolatu behar du.

*A taldeko estreptokokoa da anginak eragiten dituen bakterioa.

**Otorrinolaringologia (proba)

***Bihotz-biriken auskultazioa.

****Antibiotiko-mota (bakterio-talde handi bat suntsitzeko balio duen botika).

- Pediatrak egindako txostenean, saiatu hauek bilatzen:

1. Pazientearen datuak _____

2. Haren historia klinikoaren laburpena _____

3. Emandako asistentzia-jarduera (miaketa) _____

4. Diagnostikoa eta gomendio terapeutikoak (tratamendua).



Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.



- Interneteko bilatzaile baten bidez, tentsiometroa asmatu zuen pertsonari eta tresna horren erabilerari buruzko informazioa bildu behar dugu.



- Bilatu Interneten 'tentsiometro' hitzaren sinonimo bat. Gure blogaren bidez egin dezakezu: www.hospitalandia.blogspot.com, eskuineko zutabean: **"Goazen kontsultara" Wikipedia.**

'Tentsiometro' hitzaren sinonimoa _____

- Wikipediaren bidez, berriro, aurkitu irristaketa artistikoan zenbat mota dauden, eta idatzi haien artean zer alde dauden.

- Idatzi irristaketa artistikoan erabiltzen diren irristailuen arteko aldeak.

Izotzetarako irristailuak _____

Gainazal leunetarako (izotzik gabekoetarako) irristailuak _____

- Ezagutzen duzu irristailu gainean egiten den beste kirolrik? Idatz itzazu

- Hautatu abesti bat tentsiometro lagunak ospitaleratuta dagoen haurraren gelatik ikasgelara egiten duen biderako, eta beste bat, ikasgelatik gelara egin beharreko biderako.



- Blogean argitaratuko dugu, PPS formatuan, lortutako datuekin eta irudiekin egindako lana, hautatutako soinu-fitxategiarekin.
- Ikasgelara joan ezin diren adin bertsuko hurrekin partekatuko dugu PPS dokumentua.



Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna



- Beste pertsona batekin edo taldean lan egitearen handitasunaz hitz egingo dugu.
- Eraitza onak lortzeko talde bateko kideen artean izan daitezkeen harreman eraginkor, eta, batzuetan, afektiboak nabarmenduko ditugu.
- Bilatu hitz hauen esanahia:

TOLERANTZIA _____

KOMUNIKAZIOA _____

- Idatzi bost esaldi eragozpenak gairiditzearen garrantziari buruz, ipuinean agertzen den gaixotasuna edo zeurea gairiditzea oinarri hartuta.



1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____

- Kokatu ipuinean eszena atseginak.

- Bilatu nola esaten den “KAIXO” hizkuntza hauetan:

Gaztelania _____ euskara _____ katalana _____

Galegoa _____ ingelesa _____ frantsesa _____

Arabiera _____

Idatz ezazu hizkuntza horietako bakoitzean.

- Kokatu esaldi hau ipuinean: “hala eta guztiz ere, lehen bezala jarraituko dute biek, bai baitakite ospea iragankorra dela”.



- Esaldi horretatik abiatuta, ospearen egiazko esanahiari buruzko eztabaida txiki bati ekingo diegu.
- Kokatu esaldi hau ipuinean: “sendatzen lagundu egingo diegu”; esaldi horretatik abiatuta, **laguntzaren balioari eta eskerrak ematen jakitearen garrantziari** buruzko solasaldi labur bati ekingo diegu.



- Bilatu nola esaten den “MILA ESKER” hizkuntza hauetan:

Gaztelania _____ euskara _____ katalana _____

Galegoa _____ ingelesa _____ frantsesa _____

Arabiera _____

- Orain, helbide honetan sar zaitezke:

http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-gkhua06/es/contenidos/informacion/hua_recursos_tic/es_hua/hua.html

Eta honako hau dioen tokian: “Web Quest”, ireki: **“Descubriendo el hospital”**.

Han sartu ondoren, bilatu atal hau: **“personas que trabajan en el hospital”**.

Lan guztiak dira garrantzitsuak ospitalean, eta langile guztiak ere bai.

Beraz, gogotik esan diezaiekegu:

ESKERRIK ASKO!